

HIPOTERMIA EKAR DEZAKETEN FAKTOREAK

1. INGURUMENEOAK

- a. **HAIZEA:** bero-galera = haizearen abiadura ber bi
- b. **HEZETASUNA:** 14 aldiz handiagoa da hotzaren eragina.
- c. **ALTITUDEA:** 100 metro igotzen ditugun bakoitzean, temperatura 0,5-0,6 °C inguru jaisten da.

2. PERTSONALAK

- a. **MUTURREKO ADINAK:** haurrek eta adinekoek hotzarekiko erresistentzia gutxiago dute.
- b. **GAIXOTASUNAK:** hipotiroidismoa, giltzurrun gaineko guruinaren gutxiegitasuna, traumatismoak, hipogluzemia, nahasmendu basomotorrak, koma-egoera.
- c. **IMMOBILIZAZIOA:** beroaren ekoizpena murrizten du.
- d. **DESHIDRATAZIOA:** energiaren banaketa murrizten du.
- e. **EKIPAMENDU DESEGOKIA:** hotzetik behar bezala babestea eragozten du.
- f. **NEKEA:** deshidratazioa eta basodilatazioa sortzen ditu (bero-galera gehiago).
- g. **AHULERIA:** beroa sortzeko erregaiak falta dira.
- h. **INTOXIKAZIOAK:** alkohola, droga depresoreak, droga basodilatatzailerak, lasaitzaile muskularrak.